

IRAGARKIA

Udal Osoko Batzarrak 2008ko uztailaren 28ko batzarrean Etxebarri udalerriko ostalaritza establezimenduak arautzen dituen ordenantza behin betiko onartu du ondoren azaltzen den edukiaz:

ETXEBARRI UDALERRIKO OSTALARITZA JARDUERAK
ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN
TESTU BATERATUA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.—Xedea

Ordenantza honek udalak herritarrak babesteko, eta hurrengo artikuluetan xedatzen diren ostalaritza jarduerak eragin ditzakeen egoera gogaikarri, kaltegarri, osasun-galgarri eta deserosoak saihesteko egin beharrekoa arautzen du.

2. artikulua.—Aplikazio eremua

Udal Ordenantza hau Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuaren 2. artikulua xedatu jarduerari aplikatu beharko zaie, edo horren ordean indarrean egongo den beste edozein araudik xedatutakoak. Azken batean, ordenantza honen 3. artikulua xedatzen dituenak, hain zuzen ere.

3. artikulua.—Actividades sujetas a regulación

3.1. Ordenantza honen ondorioetarako ostalaritza ohiko lokalak eta establezimenduak, nahiz ikuskizun publikoetarako ohiko lokalak ere, garatzen duten jardueraren arabera sailkatzen dira ondoan azaltzen den moduan:

I. taldea: Adin txikientzako baimen berezia duten lokalak edo instalazioak, alkohol gabeko edariak saltzeko baimena dutenak eta jatetxe jarduerarik eduki barik. Besteak beste, dantza gelak eta gazteentzako jaiak dantzak antolatzen dituzten lokalak, dastategiak, izozki dendak, txokolategiak, Txurro dendak, ogi, opil dastategiak, te gelak eta antzekoak.

II. taldea: Edari alkoholduak emateko baimena duten lokal zein instalazioak eta baita era jatetxe moduko eskaintza egiteko dutenak. Besteak beste tabernak, upategiak, ostatuak, kafetegiak, kafe-ostatuak, jatetxeak, snack-ak, erretegiak, self-service modukoak, jantokiak, txokoak, gastronomia elkarteak, sagardotegiak eta antzekoak.

III. taldea: Jarduera berezi moduan dantzalekurik ez baina musika eskaintzeko baimena duten lokal zein instalazioak, besteak beste: taberna bereziak, whisky-tabernak, klubak, taberna amerikarrak, pubak, disko-pub, karaokeak eta antzekoak.

IV. taldea: Musika eta dantzalekuan ahiz jendearentzako ikuskizunak eskaintzeko baimena duten lokal zein instalazioak, besteak beste, jai-lekuak, dantzalekuak, diskotekak, kafe antzokiak, jatetxe-antzokiak eta antzekoak.

3.2. Udal erantzukizuna da establezimendu bakoitza talde egokian sailkatzea, partikularrak aurkeztu proiektuaren ezaugarrien arabera, edo bere kasuan legezpean ezarri nahi den jardueraren errealitatearen arabera eta jardueraren izendapena kontuan hartu gabe. Horretarako udal teknikariek behar moduko ziozko txosten egin beharko dute alde zuzenetik.

3.3. Establezimenduren bat bi talde ezberdinetan egon ahal izatekotan, behar moduan bereizita egon beharko dira espazioak eta horrela ez balitz establezimendu osoari sailkapen arabera dagoen ingurune arloko araudirik zorrotzena aplikatuko zaio.

3.4. Ezin da talde aldaketarik egin udal baimenik gabe.

3.5. Hirugarren mailako erabilera duen industria hiri-lurretan eta lurzoru urbanizaezineko biziguneak lehenengo eta bigarren taldeetako jarduerak baino ezin dira ezarri.

ANUNCIO

El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 28 de julio de 2008, ha aprobado definitivamente ordenanza reguladora de los establecimientos de hostelería en el municipio de Etxebarri, con el contenido siguiente:

TEXTO REFUNDIDO DE LA ORDENANZA REGULADORA
DE ACTIVIDADES DE HOSTELERIA EN EL MUNICIPIO
DE ETXEBARRI

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.—Objeto

La presente Ordenanza regula la actuación municipal para el correcto funcionamiento de las actividades hosteleras y para la protección del vecindario frente a las que produzcan incomodidades, alteren las normales condiciones de salubridad e higiene o impliquen riesgos para las personas o cosas, referidas en el artículo siguiente.

Artículo 2.—Ámbito de aplicación

La presente Ordenanza Municipal será de aplicación a todas aquellas actividades recogidas en el artículo 2.º del Decreto 296/1997 del Gobierno Vasco, de 16 de diciembre de 1997, o norma que lo sustituya y más concretamente los referidos en el artículo 3.º de la presente Ordenanza.

Artículo 3.—Actividades sujetas a regulación

3.1. A los solos efectos de la presente Ordenanza, los locales o instalaciones permanentes de hostelería y de espectáculos públicos se clasifican en función de las actividades a desarrollar en los siguientes grupos:

Grupo I: Locales o instalaciones autorizados específicamente para menores de edad o, con autorización para expender bebidas sin alcohol, sin que suponga actividad de restauración, tales como: salas de baile y fiestas juveniles, discotecas juveniles, degustaciones, heladerías, chocolaterías, churrerías, croissanterías, salones de té y asimilables.

Grupo II: Locales e instalaciones con autorización para expender bebidas con alcohol o ejercer actividades de restauración tales como: tabernas, bodegas, bares, cafés, cafés-bares, snacks, restaurantes, asadores, cafeterías, autoservicios, casas de comida, txokos, sociedades gastronómicas, sidrerías y asimilables.

Grupo III: Locales e instalaciones con autorización para disponer, como actividad especial, de música sin pista de baile, tales como: bares especiales, wiskerías, clubs, bares americanos, pubs, disco bares, karaokes y asimilables.

Grupo IV: Locales e instalaciones con autorización para disponer de música con pista de baile o realizar espectáculos, tales como: salas de fiesta, salas de baile, discotecas, cafés-teatros, restaurantes con espectáculos y asimilables.

3.2. Corresponde a la autoridad municipal, previo informe razonado de los servicios técnicos municipales, la adscripción de un establecimiento determinado a alguno de los grupos, a tenor de las previsiones contenidas en el proyecto presentado por el particular, o, en su caso, de la realidad de la actividad que se pretenda legalizar, siendo indiferente la denominación que adopte.

3.3. En el supuesto que un establecimiento pueda estar encuadrado en dos grupos, serán espacialmente diferenciados, aplicándose en otro caso, la normativa más restrictiva en materia medioambiental a la totalidad del establecimiento.

3.4. No podrá efectuarse ningún cambio de grupo sin la previa autorización municipal.

3.5. En suelo urbano industrial en el que esté autorizado el uso terciario y núcleos habitados de suelo no urbanizable, solamente podrán implantarse las actividades recogidas en los grupos I y II.

3.6. Establezimendu baten izendapena 3.1 artikulua xedatu talderen batean sartuko ez balitz edo bertan zerrendatutakoekin bat ez datorrenean, ordenantza honek xedatzen dituen distantziak eta bestelako parametroak zehazteko kontuan hartuko dira aurkeztutako proiektu txostenean egiten den jardueraren deskripzioa eta ezaugarriak, eta antzekotasunaren arabera dagokion taldean sartuko da ofizioz.

3.7. Ordenantza honetatik kanpo geratzen dira bereziki, aldi baterako edo behin behineko ostalaritza zerbitzuak eskaintzen dituzten jarduerak, besteak beste, zirkoetako tabernak eta jatetxeak, barrak, txosnak, eta data zehatz batzuetan, edo jai eremuetan ezarzen diren behin behineko azpiegiturak. Hala eta guztiz ere, hauek guztiak behar moduko udal lizentziak izan beharko dituzte eta araudi orokorrak eta bereziki higiene eta segurtasunei buruzkoak bete beharko dituzte ere.

3.8. Halaber; ordenantzatik kanpo geratzen dira ere, janari eginda edo egin gabekoak nahiz edari alkoholoduna nahiz gabekoak saltzen duten lokalak- salgai dauden produktuak bertan kontsumitzea lekua ez dutenean eta jendeari harrera egiteko espazioa, lokala osoaren erabilera azaleraren %25a baino txikiagoa denean. Bestalde, Makinen bitarteko salmentari dedikatzen diren lokalak ordenantzatik kanpo geratuko dira ere publikoarentzako lekua 10 metro karratu baino gutxiagoa dutenean, gainontzeko kasuetan establezimendua hauek lehenengo taldean sartuko dira.

4. artikulua.—*Arautzen diren arloak*

Ordenantza honek aurrean aipatu establezimenduek ezartzeko eta funtzionatzeko bete beharreko baldintzak arautzen ditu, hirigintza, arkitektura, suaren aurkako babesa, ingurune, eta zarata nahiz bibrazioen inguruko aspektuak kontuan hartuz.

5. artikulua.—*Ordutegiak*

Establezimenduen ordutegiak taldeka zehazten dira Eusko Jaurilaritzaren abenduaren 16ko 296/1997 dekretuak xedatzen duen moduan edo bere ordezkari indarrean egongo den beste edozein lege xedapena betez.

II. KAPITULUA

HIRIGINTZA BALDINTZAK

6. artikulua.—*Kokaguneak*

Ordenantza honen ondorioetarako udalerriko osoa kokagune bakoitza da.

Ostalaritza jarduerak ondoan aipatzen diren udal eremuetan baino ezin dira kokatu:

- a) Indarreko planeamenduak etxebizitzarako sailkatzen dituen lurzoruetan.
- b) Hirugarren mailako erabilera onartzen duten industria hiri-lurretan.
- c) Lurzoru urbanizaezineko biziguneetan.

7. artikulua.—*Eraikinaren barruko kokagunea*

Etxebizitza lurzoruetan, hirugarren sektoreko industria lurzoruetan nahiz Lurzoru urbanizaezineko biziguneetan garatu nahi diren jarduerak ondoren aipatzen diren baldintzak bete beharko dituzte, eraikin osoa ostalaritza erabilera baino ez badu izan ezik:

Jarduerak eraikinaren beheko solairuetan kokatuko dira eta ondoko atalean zehazten diren baldintzak betez gero eta aplikatu daitezkeen bestelako arau edo ordenantzen bete beharra kaltegarri gabe, espazioa osatzeko sotoak erabili daitezke ere.

Beheko solairuan gartzen den jarduera, jarduera nagusia izango da eta sotoan garatzen den horren osagarria baino ez da izango.

Ostalaritza jarduerari lotuta geratzen den sotoko azalera erabilgarria jarduera nagusiko zerbitzuak ezartzeko baino ez erabili da, besteak beste, jendearentzako komunak, aldagelak, biltegiak eta bereziki erabilera publikoarentzako ez diren gainontzeko zerbitzuak.

Beheko solairuaren gutxienezko altuera, apaingarriak sartuta berrehun eta laurogei (280) zentimetrokoa izango da.

3.6. En los casos en que la denominación de un establecimiento no se corresponda a ninguno de los incluidos en los grupos enumerados en artículo 3.1., para la delimitación de las distancias y otros aspectos recogidos en la presente Ordenanza, se tendrá en cuenta la descripción de la actividad que se efectúe en la memoria del proyecto presentado, incluyéndolo de oficio en el Grupo que le corresponda por similitud.

3.7. Quedan expresamente excluidas de la presente regulación las actividades hosteleras provisionales y las temporales tales como servicios de bar, café o restaurante en circos, barracas, txoznas y otras estructuras desmontables, en fechas determinadas o en recintos festivos, sin perjuicio de que todas ellas precisen de la pertinente autorización municipal y queden sometidas al cumplimiento de las normas generales, sobre todo en materia de seguridad e higiene.

3.8. Asimismo quedan excluidos los locales de venta de alimentos elaborados o sin elaborar y/o bebidas con o sin alcohol donde no se consuma el producto de venta dentro del local, cuando la zona de atención al público no supere el 25% de la superficie útil del local. En los casos de venta exclusiva por máquinas expendedoras, solamente se excluyen aquellos locales cuya superficie pública no supere los 10 m². Si se supera esta superficie, el establecimiento se considerará a todos los efectos englobados en el grupo I.

Artículo 4.—*Materias reguladas*

La presente Ordenanza regulará la instalación y funcionamiento de los establecimientos referenciados desde el punto de vista urbanístico, arquitectónico, de protección contra incendios, ambiental y de transmisión de ruido y vibraciones.

Artículo 5.—*Horarios*

Los horarios de los respectivos establecimientos, en función de los grupos a los que pertenecen, serán los establecidos en el Decreto 296/1997, de 16 de diciembre, o disposición legal que lo sustituya.

CAPÍTULO II

CONDICIONES URBANÍSTICAS

Artículo 6.—*Zonas de emplazamiento*

A los efectos de la presente Ordenanza, se establece todo el término municipal como una única zona.

Únicamente podrán ubicarse actividades de hostelería en los siguientes ámbitos municipales:

- a) Suelos calificados por el Planeamiento vigente como Suelos Residenciales.
- b) Suelo urbano Industrial con uso terciario tolerado.
- c) Núcleos de población en suelo no urbanizable.

Artículo 7.—*Ubicación en el edificio*

Las actividades previstas en suelo residencial, industrial terciario, no urbanizable dentro de núcleos habitados, salvo que la totalidad del edificio sea de uso hostelero, deberán situarse de acuerdo con las siguientes condiciones:

Las actividades se situarán fundamentalmente en las plantas bajas de los edificios, pudiendo complementarse con la adición de sótanos, siempre y cuando se cumplan las condiciones señaladas en el apartado siguiente y sin perjuicio del cumplimiento de otras Normas y Ordenanzas que sean de aplicación.

La actividad que se desarrolla en la planta baja será la principal, debiendo ser la de sótano complementaria de aquélla.

La superficie útil de sótano vinculada a actividad hostelera sólo podrá destinarse a servicios dependientes de la actividad principal desarrollada en la planta baja, tales como aseos de público o de personal, vestuarios, almacén y en general los no contemplados como superficie de uso público.

La altura libre mínima de la planta baja, incluidas decoraciones, será de doscientos ochenta (280) centímetros.

Komunak eta aldagelak ezartzeko erabiltzen den sotoko gutxieneko altuera berrehun eta hogeitazentimetrokoa (220) izango da.

Sotoa beheko solairuarekin lotuta geratuko da zuzenean eta ezin izango da bertan sartu eraikinaren beste sarrera bideren batetik.

8. artikulua.—*Kokatze baldintzak (gutxieneko distantzia)*

Jarduera berri bat ezartzeko eskatzen diren gutxieneko distantziak ondoko taulan agertzen dira. Distantziak neurtzerakoan erreferentzia gisa erabiliko dira instalatu nahi den jardueraren kokagunetik eta alde zuzenetik instalatuta edo indarreko lizentzia dagoen beste establezimendu baten kokagunera dagoena.

Zabalduta dagoen establezimendua	Zabalduta nahi den establezimendua			
	I taldea	II taldea	III taldea	IV taldea
I. taldea	0 m	0 m	0 m	100 m
II. taldea	0 m	20 m	40 m	100 m
III. taldea	0 m	40 m	100 m	100 m
IV. taldea	0 m	60 m	100 m	100 m

Ondoren aipatzen diren establezimenduek ez dituzte gutxieneko distantzia hauek bete behar: Txokoak, gastronomia elkarteak, eta kontsumitzeko barrarik ez duten jantokiak, hots ostalaritzako ohiko makineriaz —harrikoa egitekoa, izotza egitekoa, hozkailuak eta abar— hornituta dagoen barrarik ez daukana eta edari alkoholunak saltzeko makinarik gabekoak, alegia. Establezimendu hauek guztiak instalatzeko ez dira gutxieneko distantziak bete behar eta ez dira kontuan hartuko establezimendu berri bat zabalduta nahi denean. Distantziak betetzeko salbuetsita dauden establezimendu hauek jarduerak aldatu nahi izanez gero edo talderik aldatuz gero jarduerak lizentzia berri bat tramitatu beharko dute, aldaketa talde beraren barruan izan arren eta Ordenantza honek xedatu baldintza guztiak bete beharko dituzte, xedatu gutxieneko distantziak baita ere.

9. artikulua.—*Distantziak neurtzeko era*

Aurreko puntuan xedatu gutxieneko distantziak neurtzerakoan Udal Zerbitzu Teknikoek lekuan bertan egongo dira eta ondorengo irizpideen arabera neurtuko dute:

9.1. Distantziak zirkunferentzia baten erradioaren arabera neurtuko dira, zirkunferentziaren erdigunea kokagune berritik hurbilen eta zabalik dagoen establezimenduaren muga izanik.

9.2. Instalatu nahi den jardueraren kokagunetik eta alde zuzenetik instalatuta edo indarreko lizentzia dagoen beste establezimendu baten kokagunera dagoen distantzia neurtzeko, kasu bakoitzean eta erreferentzia gisa martxan dagoen establezimendutik eta kalean dagoen fatxadaren mugan sortzen den linea hartuko da kontuan, linea hori martxan ezarri nahi den establezimenduaren fatxadarik hurbileneraino joango da. Neurriak hartzerakoan establezimenduaren fatxada mugaren puntuak ondoko hauek izango dira:

a) Lokalaren barruko perimetroa eta eraikinaren fatxadaren arteko elkargunea edo lotura puntuak.

b) Lokalaren barruko perimetroaren proiektzioa eta eraikinaren fatxadaren arteko elkargunea edo lotura puntuak.

9.3. Fatxadaren lineatik neurtu beharreko distantziak zehazteko ez dira kontuan hartuko fatxada berak dituen patioak edo atzera zein aurrerako espazioak.

9.4. Galeriak eta merkataritza pasabideak aurreko atalean zehaztutakoen artean egongo dira sarrera bakar bat izanez gero.

9.5. Neurtze ondorioetarako kale ezberdinetan sarrera eta irteera duten galeriak zein pasabideak lerrotatze linea bat bezala kontsideratuko dira, baina distantzia mugak galeria edo pasabidearen bi aldeetara egokituko zaizkie.

La altura libre mínima de los sótanos que se usen para aseos y vestuarios será de doscientos veinte (220) centímetros.

El sótano quedará vinculado físicamente a la planta baja, no pudiendo accederse al mismo desde los elementos comunes del inmueble.

Artículo 8.—*Condiciones de emplazamiento (distancias mínimas)*

Las distancias mínimas requeridas para la instalación, tomadas éstas como la referencia entre el establecimiento que se pretende instalar y el ya instalado o con licencia en vigor para hacerlo, serán las establecidas en el cuadro siguiente:

Establecimiento existente	Establecimiento pretendido			
	Grupo I	Grupo II	Grupo III	Grupo IV
Grupo I	0 m	0 m	0 m	100 m
Grupo II	0 m	20 m	40 m	100 m
Grupo III	0 m	40 m	100 m	100 m
Grupo IV	0 m	60 m	100 m	100 m

Se eximirá del cumplimiento de distancias mínimas a los siguientes establecimientos: txokos, sociedades gastronómicas y restaurantes sin barra de consumición para el público, entendiéndose por éste último un mostrador con maquinaria propia de hostelería como fregaderas, frigoríficos, máquina de fabricar hielo, etc. y, sin dispositivos de autoservicio de bebidas alcohólicas. Estos establecimientos no estarán vinculados por las distancias mínimas si desean instalarse, ni su implantación computará en relación a otros establecimientos pretendidos. Si estas actividades a las que se les exige el cumplimiento de distancias pretendieran cambiar de actividad, aunque fuera dentro del mismo grupo, deberán tramitar la licencia de actividad o cambio de grupo como si se tratara de una nueva licencia, teniendo que cumplir todas las condiciones de la presente Ordenanza, incluidas las distancias mínimas.

Artículo 9.—*Forma de medir las distancias*

Para determinar el cumplimiento de la distancia mínima fijada en el punto anterior, los Servicios Técnicos Municipales medirán «in situ» la distancia de acuerdo con los criterios siguientes:

9.1. La medición de distancias se hará de forma radial, tomado como centro el extremo del local con licencia en vigor, más próximo a la nueva ubicación pretendida.

9.2. Para determinar la distancia entre un establecimiento a instalar y el ya existente más próximo, se considerará en cada caso una línea cuyo principio será el punto límite en la fachada a vía pública, del local que ocupe la actividad ya autorizada, en el lado más próximo a la que se solicite, y el final será el límite en fachada a vía pública, del local de la actividad que se pretende instalar, en su lado más próximo a la ya ubicada. A efectos de mediciones se considerarán como puntos límite en fachada de un establecimiento:

a) Los obtenidos por intersección del perímetro interior del local con la fachada del edificio.

b) Los obtenidos por intersección de las proyecciones del perímetro del local, en cualquiera de sus plantas, sobre la fachada del edificio.

9.3. La medición de distancias sobre alineación de fachadas no se considerará interrumpida por la formación de retranqueos o patios abiertos.

9.4. Las galerías y pasajes comerciales se encuentran incluidas en el apartado anterior si disponen de una sola entrada.

9.5. Las galerías con entrada y salida independientes a calles distintas adquirirán, a los solos efectos de medición de distancias, condición de alineación oficial, con la particularidad de que la limitación de distancias se entenderá referida a ambos lados del pasaje o galería.

III. KAPITULUA

ARKITEKTURA BALDINTZAK

10. artikulua.—Lokalen forma eta neurriak

Etxebarri udalerri osoan, ostalaritza lokal berriak edo berritu nahi direnak ere ondoko arkitektura baldintzak bete beharko dituzte:

10.1. Kasu guztietan beheko solairuan ezartzen den establezimenduaren fatxada luzera eta azalera erabilgarriaren arteko erlazioa gutxienez ondoko parametroak beteko ditu: azalera erabilgarriaren hogeita bost (25) metro karratuko fatxadako metro lineal bat (1).

10.2. Ondorio hauetarako fatxadako luzera izango da ondoko hau: Sarrera bidearen zabalera egokia eta atearen barruko alde-
tik neurturik, lokalaren barruko erabilera publikoko perimetroaren eraikinaren fatxadan eragindako proiektzioak batzen dituen segmentua izango da. Beti ere beheko solairuari dagokiona.

10.3. Aurreko atalean xedatutakoa kaltetu gabe kalera ematen duen fatxadaren gutxieneko luzerak ondoko hauek izan beharko dira:

I eta II taldeetako: Hirurehun eta berrogeita hamar (350) zentimetro.

III eta IV taldeetako: Laurehun eta berrogeita hamar (450) zentimetro.

11. artikulua.—Azalera eta edukiera

11.1. I eta II. taldeetako lokaletan publikoarentzako azalera erabilgarriak 20 metro karratu izango du gutxienez. Neurri horiek lokalean egokitze lanak egin baino lehenago neurtu beharko dira. Bestalde, lokala zein eraikinaren egiturako elementuak ez dira kontuan hartuko gutxieneko neurri horiek betetzeko.

11.2. III. taldeko lokaletan publikoarentzako azalera erabilgarriak 100 metro karratu izango du gutxienez. Neurri horiek lokalean egokitze lanak egin baino lehenago neurtu beharko dira. Bestalde, lokala zein eraikinaren egiturako elementuak ez dira kontuan hartuko gutxieneko neurri horiek betetzeko.

11.3. IV. taldeko lokaletan publikoarentzako azalera erabilgarriak 150 metro karratu izango du gutxienez. Neurri horiek lokalean egokitze lanak egin baino lehenago neurtu beharko dira. Bestalde, lokala zein eraikinaren egiturako elementuak ez dira kontuan hartuko gutxieneko neurri horiek betetzeko.

11.4. Establezimendu baten publikoarentzako azalera erabilgarria izango da establezimendua eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzeko jendeari eskaintzen zaion eremua.

11.5. Aipatu eremu azalera lortuko da, lokalaren azalera erabilgarriari ondoko zerbitzuak betetzen dituzten eremuak kenduz gero:

Jendearentzako komuna zerbitzuak.

— Barra.

— Sukaldeak.

— Biltegiak.

— Bulegoak.

— Langileentzako aldagelak eta komunak nahiz orokorrean nor
edonoren erabilerarako ez den beste edozein eremu.

11.6. Edukiera edo aforoa publikoetarako lokal batek, kopuruaren aldetik, jendea hartzeko izan behar duen gaitasuna izango da. Beti ere suteen aurkako CTE-SI araudia eta berarekin bat egiten duen gainontzeko araudiren arabera.

12. artikulua.—Establezimenduetako gutxieneko altuerak

12.1. Gutxieneko altuerak izango dira lokalaren zola eta sabaia-
ren edozein (apaingarriak baino ez direnak izan ezik) elementuaren arteko geratzen den distantzia.

12.2. Sotoko solairuentzako xedatzen dena kaltetu gabe, gutxieneko altuerak ondoko hauek izango dira:

CAPÍTULO III

CONDICIONES ARQUITECTÓNICAS

Artículo 10.—Forma y dimensión de los locales

En la totalidad del término municipal de Etxebarri, las condiciones arquitectónicas que deben cumplir los nuevos locales de hostelería y aquellos que se pretendan reformar, serán las siguientes:

10.1. En todos los casos la relación entre la longitud de fachada y la superficie total útil del establecimiento en planta baja será, como mínimo, la de un (1) metro lineal de fachada por cada veinticinco (25) metros cuadrados de dicha superficie.

10.2. A estos efectos se entiende por longitud de fachada la del segmento que une las proyecciones sobre la alineación oficial de fachada de las intersecciones del perímetro de la zona pública del interior del local con acceso de ancho adecuado con la cara interior del cierre permanente de aquélla, siempre con referencia a la planta baja.

10.3. Con independencia de lo establecido en el apartado anterior, la longitud mínima de la fachada o frente de vía pública de los locales será la siguiente:

Grupos I y II: Trescientos cincuenta (350) centímetros.

Grupos III y IV: Cuatrocientos cincuenta (450) centímetros.

Artículo 11.—Superficie y capacidad

11.1. Se establece como superficie útil pública mínima de un local perteneciente al grupo I o grupo II la de 20 m², medidas antes de la realización de cualquier tipo de obra de acondicionamiento, y descontando todos aquellos elementos que formen parte de la estructura propia del mismo o del edificio en donde se halla ubicado.

11.2. Se establece como superficie útil pública mínima de un local perteneciente al grupo III la de 100 m², medidas antes de la realización de cualquier tipo de obra de acondicionamiento, y descontando todos aquellos elementos que formen parte de la estructura propia del mismo o del edificio en donde se halla ubicado.

11.3. Se establece como superficie útil pública mínima de un local perteneciente al grupo IV la de 150 m², medidas antes de la realización de cualquier tipo de obra de acondicionamiento, y descontando todos aquellos elementos que formen parte de la estructura propia del mismo o del edificio en donde se halla ubicado.

11.4. Se entenderá por superficie útil pública de un establecimiento, la destinada a estancia de las personas y disfrute de los servicios del establecimiento.

11.5. Dicha superficie quedará obtenida como resultado de deducir de la superficie útil o total del local, aquella que se destine a los siguientes usos:

Servicio de aseos de público.

— Barra.

— Cocinas.

— Almacén.

— Oficinas.

— Servicios de aseos y vestuarios del personal y, en general, todos aquellos espacios que queden excluidos del uso del público.

11.6. Debe entenderse por capacidad o aforo de un local, la capacidad total del público, según se establece en la justificación del CTE-SI (seguridad contra incendios) y Normativa concordante.

Artículo 12.—Altura mínima de los establecimientos

12.1. Debe entenderse por altura mínima, la existente entre el pavimento del local y cualquier elemento de los que componen la terminación de su techo, excluidos los meramente decorativos.

12.2. Sin perjuicio de lo establecido para la planta de sótano, la definición de alturas mínimas será la siguiente:

- En la superficie pública: 2,80 m. No obstante, podrán tener una zona de altura no inferior a 2,50 metros, en una superficie que no exceda del 10% de la superficie pública del local.
- En el resto del local: 2,50. No obstante podrán tener una zona de altura no inferior a 2,20 metros, en una superficie que no exceda del 10% de dicha superficie.

13. artikulua.—*Irisgarritasuna*

Ordenantza honek arautzen dituen erabilera garatu ahal izateko egin behar diren egokitze zein berritze lanek, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuk —edo horren orde z indarrean dagoen beste xedapenaren batek— xedatu irisgarritasun baldintzak bete beharko dituzte.

14. artikulua.—*Establezimenduetako sarrera*

14.1. Jarduera beheko solairuan garatu beharko denez, establezimenduen sarreraren bat gutxienez kalearen maila berean egon beharko da. Sarrera hau kaletik, erabilera publikoko bidetik edo espazio libre pribatu batetik egingo da zuzenean. Sarrera ez da inoiz egongo eraikinaren elementu komunetan.

14.3. Pasabidearen gutxienezko zabalera 0,90 metrokoa izango da.

15. artikulua.—*Ateak*

15.1. Ateetako gutxienezko altuera 2,10 metrokoa izango da. Komuneko ateen kasuan edo erabilera ez publikoko geletako ateen kasuan gutxienezko altuera 2 metroetan xedatzen da. Gutxienezko altuera honek eskatu gutxienezko zabalera eskatzen du ere.

15.2. Kanpotik sartzeko ate bikoitza duten establezimendu guztietan itxierako sistema automatikoa egon beharko da, ateak une oro itxiak egon daitezken.

15.3. III eta IV. Taldeetako establezimendu guztiek, eta baita ere II. taldekoek, atea zabalik eta horren aurrean metro batera zarata neurketa eginez gero, 40dB-ko bolumena transmititzeko gaitasuna duten soinu tresneria dutenean, bi ate eduki beharko dute sartzeko. Ate horiek behar moduan bereziak eta alde perpendikularretan egon beharko dira kanpora doan zarata ahalik eta gehien murrizteko. Hala ere, itxiera sistema automatikoa eduki beharko dute, jarduera garatzen den bitartean ateak itxita egon daitezken. Ate bien artean gertatzen den sarbidea irisgarritasunari buruzko araudiak xedatu baldintzak bete beharko ditu. Larrialdietako irteeren ateek ez dute baldintza hau bete behar.

15.4. Establezimenduan sartzeko ateetan pertsianak dituzten lokalak ekipamendu motorduna eduki beharko dute pertsiana itxi eta zabaltzeko. Halaber behar moduko sistema izan beharko dute zaratak eta bibrazioak saihesteko.

16. artikulua.—*Bete beharreko araudiak*

Edozein taldeetako ostalaritza establezimendu edo antzeko jarduera garatzeko aurkeztu beharreko Jarduera proiektuaren txostenean aplikatu beharreko araudi guztiak betetzen direla azaldu beharko da eta bereziki ondoko hauek:

- 3/1998 LEGEA, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra eta lege bera garatzen duten erregelamenduak.
- Etxebizitza hiri lurreko jarduera gogaikarri, kaltegarri, osasungaitz eta arriskutsuei aplikatu behar zaizkien araudi tekniko orokorrak onartzen dituen ekainaren 11ko 171/1985 Dekretua.
- Eraikitze Kode Teknikoa (CTE) garatutako oinarritzko dokumentu guztietan aplikatu behar denean. Bereziki ondoko hauek: suteen aurkako neurriak zehazten dituen (DB-SI), erabiltze segurtasun neurriak zehazten dituen (DB-SU), energia aurrezketak (DB-HE) eta zaratare aurre egiteko (DB-HR).
- Zarata legea eta bere erregelamenduak.

- En la superficie pública: 2,80 m. No obstante, podrán tener una zona de altura no inferior a 2,50 metros, en una superficie que no exceda del 10% de la superficie pública del local.
- En el resto del local: 2,50. No obstante podrán tener una zona de altura no inferior a 2,20 metros, en una superficie que no exceda del 10% de dicha superficie.

Artículo 13.—*Accesibilidad*

La reforma y acondicionamiento de locales para los usos previstos en esta ordenanza cumplirán las condiciones de accesibilidad exigibles a tenor del Decreto 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación, o disposición que lo sustituya.

Artículo 14.—*Accesos a los establecimiento*

14.1. Al menos un acceso de entrada al establecimiento se producirá al mismo nivel de la rasante exterior, ya que aquél solo podrá desarrollar la actividad a través de la planta baja. Dicho acceso se producirá directamente desde la vía pública o de uso público, o a través de espacio libre privado, pero nunca a través de los elementos comunes de la edificación.

14.2. El hueco de paso mínimo será de 0,90 metros.

Artículo 15.—*Puertas*

15.1. La altura mínima de las puertas será de 2,10 metros, excepto para los servicios de aseo y demás dependencias de uso no público, que se fija en dos metros. Esta altura mínima se cumplirá en el ancho mínimo exigido.

15.2. Todos los establecimientos que cuenten con doble puerta de acceso exterior tendrán un sistema automático de cierre debiendo permanecer éstas en posición de cerradas.

15.3. Todos los establecimientos comprendidos dentro de los grupos III y IV y aquellos establecimientos pertenecientes al grupo II con instalación de aparatos de sonido susceptibles de transmitir al exterior 40 dB (A) medidos a un metro en el exterior con la puerta abierta y frente a ella, dispondrán en el acceso de dos puertas, separadas entre sí, situadas en paramentos perpendiculares entre sí, para mitigar el sonido emitido al exterior, con mecanismo de cierre automático en posición de cierre durante el transcurso de la actividad. Se exceptuarán de esta cualidad las puertas de emergencia, no utilizadas como acceso. El vestíbulo que se crea entre las puertas separadas, cumplirá lo señalado en la normativa sobre accesibilidad.

15.4. Todos aquellos establecimientos que cuenten con persiana en alguna de las puertas de acceso al mismo, ésta estará equipada con elementos motorizados, para la apertura y cierre de la persiana, dotados de la correspondiente insonorización y elementos antivibratorios.

Artículo 16.—*Normativa de obligado cumplimiento*

En todos los casos a la hora de presentar el Proyecto de Actividad de cualquier establecimiento de hostelería o similares en cualquiera de sus Grupos, en la memoria se deberá justificar el cumplimiento de toda la Normativa que le sean de aplicación y en especial las siguientes:

- Ley General de Protección de Medio Ambiente del País Vasco Ley 3/1998 de 27 de febrero y Reglamentos que la desarrollen.
- Decreto 171/1985 de 11 de junio, por el que se aprueban las normas técnicas de carácter general, de aplicación a las actividades molestas, insalubres, nocivas y peligrosas a establecerse en suelo urbano residencial
- Código Técnico de la Edificación (CTE) en todos aquellos documentos básicos (DB) que se hayan desarrollado y le sean de aplicación, es especial el DB-SI (seguridad en caso de incendio), DB-SU (seguridad en caso de utilización), DB-HE (ahorro de energía), DB-HR (seguridad frente al ruido).
- Ley de Ruido y los reglamentos correspondientes.

- Aplikazio beharreko beste edozein osasun araudia eta bereziki jantoki kolektibo eta elikagaien manipulazioari buruzkoak.

17. artikulua.—IV. taldeko establezimenduentzako baldintza bereziak

IV. taldeko establezimenduek ondoko baldintzak beteko dituzte:

17.1. *Diskoteka eta antzekoak:* Dantza leku aproposa izan beharko dute, behar moduan bereizita arkitektura elementu tinkoen bitartez eta gutxienez lokal azaleraren %10a beteko duena, eta edozein kasutan ere, beti 25 metro karratu baino gehiago eduki beharko duena.

17.2. Kafe-antzerkiak eta bestelako ikuskizunak eskaintzen dituzten establezimenduak, eszenatoki aproposa izan beharko dute, behar moduan bereizita arkitektura elementu tinkoen bitartez eta gutxienez lokal azaleraren %5ean beteko duena eta edozein kasutan ere, beti 20 m² baino gehiago eduki beharko duena. Halaber, bertan 4 m-ko diametroko zirkulu bat inskribatu ahal izango da eta gutxienez 250 cm-ko altuera libre izan beharko du. Horrez gain, behar moduko aldagelekin batera, gutxienez bi kamerino eta bi komuna ezarri beharko dira, bakoitzak bere gutxienezko azalera; hots kamerinoak alde batetik eta komunak beste batetik, sexuaren arabera banatuak eta 10 m²ko azalera erabilgarriaz.

17.3. Kafe antzokiko lizentziako lokalek udalari jakinarazi behar diote bertan eskainiko duten programazioa, ekintza egin baino, gutxienez, 72 ordu lehenago. Halaber urteko lehenengo hilabetean egindako ekintzen memoria aurkeztu beharko dute, urtean 18 ekintza egin beharko dira gutxienez. Bestalde, egindako ekintzen ordainagiriak eta publizitate kartelak aurkeztu beharko dira ere. Ordenantza honen onartze data baino lehen IV. Taldeko lokal lizentzia indarrean daukaten establezimenduek baldintza hau bete beharko dute ere.

18. artikulua.—Isolatze baldintzak

